



AIV
25012

GOISERACO TA GABERACO

ERREGUBAC

ERROSARIJO, MEZA,

CONFESIÑO

TA

COMUNINORACUAC

ETA


CURUTZIETACO EGUN BIDIA.

BEAR DAN BAI EMONAZ.

DURANGON.

Julian Elizalderen moldesteguián,

1884 GARREN URTIAN.



IRACURLIARI.

Liburuchu onetan ipinten dirian erreguac dagos arturic, 1880 garren urtian Barcelonan molderatu zan, *Baserritar jaquitunaren Echeco Escoliari* esarri jacon gueigarritic; eta aren asieran esaten dan leguez, dira guztiac edo gueienac, *Egunoroco lan on ta erreguben* izenagaz D. Juan Jose Moguelec arguitara emon eban, liburucuac.

Molderatuten dabe, aitatu dirian liburuac molderatu ditubezan, Sacerdote Jaunac, izan daiten merquiago, eta umiac bere ain bagaric egon ez daitezan.



DERERNY.

GOISIAN OGUETI JAGUI,

TA EGUN ATACO EGUITADIAC JAUNGOI-
CUARI ESQUINTZECO ERREGUBA.

*Jaguiten zarianian, ur bedinca-
tuagaz seña tutua, jarrico zara be-
launico, ta esango dozu vijotzetic.*

Neure Jaungoico maitia, es-
querrac emoten deutsudaz, orain
artian eguin deustasuzan mesede
guztiac gaitic, ta batez bere, egun
santu au arguitu deustazulaco.
Eguizu arren igaro daidala neure
bicitzaco asquenengua balitz le-
guez, pecaturic eguin baga, ta
cristiñau on baten lan eta biarre-
tan. Nic maite zaitudaz gauza guz-
tien ganian; ta ceure borondatia

eguin ta zuri atseguin emotiarren, esquintzen deutsudaz gaurco pensamentu, berba, eguite ta neque guztiac, Jesusen irabastia-
caz batera, ceure onra ta glori-
jaric andieneraco, neure peca-
tuen paguraco, ta Purgatorijoco
arimen ascaldiraco. Eta ceure go-
gocuaguac izan daitezan, esquin-
tzen deutsudaz Ama Santisimia-
ren escuetatic, ceiñi escatuten
deutsadan, gorde naijala tentaci-
ño ta arriscu guzietatic.

*Esquintzari au bijotzetic egui-
da, erreza u eguzus Aita gure bat,
iru Ave Maria, Salve, ta Aita gu-
re bat ceure Angueru jaoliari.*

Gaberaco erregubac.

*Aztertu eguzu dempora pusca
baten, celan igaro dozun eguna,*

*ta guero pecatuen damu bicijagaz
esan eguizu:* Neure Jesuchristo
Jauna, etc., *ta onen urrengo er-
regu au.*

Neure Jaungoico maitia, es-
querrac emoten deutsudaz neure
bicitzan eguin deustazuzan me-
sede guztiac gaitic, ta batez bere
gorde nozulaco gaurco egunian.
Damuturic nago vijotzetic, eguin
ditudazan pecatuacaz, ta emoten
deutsut berbia ez gueijago egui-
teco. Zaindu naguizu, Jauna, gau
onetan arimaco arerijuetaic ta
ames charretatic.

Ceruco Erreguiña ta nire Ama
laztana, gorde naizu arren peca-
tutic, ta eguizu izan nadilla guz-
tiau Jaungoicuarena.

*Emen errezauco dozus iru Ave
Marija, Salve, ta Aita gueuria*

San Joseri; ta ur bedincatuagaz señatuta sartuco zara oian esanagaz; Jesus, Marija ta José zuben escuetan ichiten dot neure arimia.

Luac artu artian, euqui ciñaique pensamentu au. ¡Cemba! illgo diran gau onetan! Noc daqui, neure bere illo banaz? Alan jasoco balit, noraco ete nintzateque.

Eguneco erreguac.

Goisian egubardijan ta illuntzian Ave Marijaco campaiac jo-tian, dagoz indulgencija edo par-camenac erregu onec eguiñagaz.

Jaunaren Angueruac emon eutsazan barri onac Marijari, ta Jaungoicuaren Semia sortu zan bere sabelian Espiritu Santubaren eguitez. *Ave Marija, etc.*

Ara emen Jaunaren esclaba edo menpecua, eguin dedilla nigan, zuc esan dozuna. *Ave Marija, etc.*

Jangoicuaren Semiac artu eban gure araguija, ta vici izan zan gu-re artian. *Ave Marija, etc.*

ERREGUBA.

Jauna, esarri eguizu guganutz zure doe edo gracija; zure seme Cristoren araguitute edo guizon eguitia Ainguerubaren bitartez ja-quin dogunoc, bere neque ta cu-rutzia gaitic, eruanac izan gaitian viztuera barrico atseguin edo glo-rijara. Alan izan dedilla.

Artu eguizu oituria, erlojuba entzutian, ta entzuten ezpada be-

re noissian bein, Ave Marija bat esateco, esanic lelengo; *Bici bedi Jesus; Ill bedi pecatuba; ta guero; Bici bedi Marija, Doncella neure Ama maitia.*

Jan aurreraco erregubac.

Aitiaren ta Semiaren, etc. Jaungoico ondasun guztijen emollia, zure escubetatic artuten dabé abere, patari ta arrain guztijac vici izateco janarija. Emon eigu-zu bada guri bere egunian eguniango oguija, ta dontsatu edo bedeincatu eguizu, orain zure ice-nian jatera guazana, izan dedin gure osasuneraco, ta zu gueijago maitetuteco. *Aita gueuria ta Ave Marija, etc.*

Jan osteraco erregubac.

Esquerrac, Jaun maitia, guraso ona leguez emon deuscuzulaco ceure janarija. Eguizu, izan gaitala beti ezauguera onecuac zure mesede andijetara. *Aita gueuria ta Ave Marija, etc.*

Escatuten deutsugu gueure onguilla ta arerijuac gaitic, ta erruquitu zaitiala Purgatorijo edo Garbilecuban dagozan arima guztijacaz. *Aita gueuria ta Ave Marija, etc.*

Jaungoicuac bere escutic euqui gaiquezala munduban, ta guegro guztijoc batu gaizala asteguinenez ceruban. Alan izan dedilla.

Sinistute, icharopen ta maitetasunezco eguintzac. Edo acto Fede, Esperantza ta Çaridadecuac.

Sinistecua.

Oh, neure Jaungoicua! Nic sinistuten dot, zariana Jaungoico bacarra iru Personetan. Nic sinistuten dot, artu ebala gure araguija irubatasun Santuco bigaren Personiac Maria Doncelliaren errai garbijetan, Espiritu-Santubaren eguitez. Jaijo zala Amaren doncellatasunaren calte baga. Ill zala curutzian, gu pecatutic ate-rate arren. Irugarren egunian viztu zala. Guero igon ebala cerubetara. Etorrico dala juicijo edo zucentasuneco egunian, ta emongo deutsezala onai betico atsegui-

ñac, ta deungai betico neque ta castiguac. Sinistuten dot biotz osuagaz Eleissa Ama santubari eracutsi deutsazun guztija, cerren utsic ecin cinaijan, zarialaco ona, ta eguija bera; eta gura dot vici ta ill siniste onetan.

Icharopenecua.

Oh, neure Jaungoicua! Icharoten dot zure erruqui, ta ontasun amaibagan; eta Jesu-Christoren irabaci edo merecimentubac gaitic, parcatuco deustazuzala neure pecatubac, emongo deustazula zure doe edo gracija gordetako zure aguindubac, eriotza on bat, ta onen ondoren betico atseguin edo glorija.

Maitetasunecua.

Oh, neure Jaungoicoa! Nic maitetuten zaitut biotz ta aleguin guztijagaz, gauza guztien gañian, cerren zarian guztiz on ta maitegarrija; maitetuten bere dot neure lagun edo progimua neure buruba leguez ta zure maitetasunez. Alan izan dedilla.



ERROSARIJO SANTUBAREN GAÑIAN.

Ara emen zorijoneco oneraspen cristandade guztijan zabaldu-ric daguana. Daucaz amabost ez-cutapen edo misterijo, euretan gogo ta biotza egon ditian, erre-cetan dogun artian. Bada, jaquin eguizu, miyn utsagaz eguiten diran errezubac, dirala verba al-perrac, ceintzubequin ez dan ecer irabazten, galdu baño. Eta, joh, cembat errezu alper ta gatz baga-co eguiten dan gure artian! Ez eguizu zuc alan eguin, ta bai viot-zagaz batera, ta dagozan parca-men edo indulgencijac irabazte-co gurari vici bategaz.

Escutapen edo misterijo gozatzubac

ASTELEN TA EGUBENERACO.

I. JESUS GUIZON EGUIN ZANECUA

Ce poz ce atseguiña

Zure viotzian

Maria artu cenduban

Jesus sortutian.

Aita gueuria, etc.

II. MARIJA ISABEL ICUSTERA

JUAN ZANECUA.

Jaunaren ama zara,

Dirautsa Isabelec,

Poza autortuten dau

Saltoca Juanec.

Aita gueuria, etc.

III. JAIJO ZANECUA.

Ama, zure viotza,

Jesus icusiric,
Celan guelditu izan zan
Pocez ill bagaric?
Aita gueuria, etc.

IV. AMA DONCELLIA ELEISSAN
SARTU ZANECUA.

Emen Simeon zarrac
Jesus laztanduric,
Pocezco malcuacaz
Zaucaz gozaturic.
Aita gueuria, etc.

V. JESUS TEMPLUBAN AUR-
QUITU EBANECUA.

Nun zan zuc ez jaquinic
Templuban ceuncana:
Aurquitutaco poza
Zabaldu gugana.
Aita gueuria, etc.

Escutapen Samin edo Dolorezcuaç

MARTITZEN TA VARIJACURACO.

I. ORTU SANTUCO ERREGU-BARENA.

Odolez icerturic
Jesus auzpaztuba,
¿Celan aurquituco zan
Ama saminduba?

Aita gueuria, etc.

II. JESUSEN AZOTEENA.

Jesusen gorputzeco
Azote gogorrac
Icaratzen ditubez
Amaren azurrac.

Aita gueuria, etc.

III. ARANTZAZCO ARO EDO,
COROIARENA.

Garunac igarota
Arantza gogorrez
Jesus, ta Ama beguira
Urturic negarrez.
Aita gueuria, etc.

IV. CURUTZIA ERUATIARENAA.

Curutzia lepuan
Jesus ortozturic,
Amac beti darraico
Ecin aldenduric.
Aita gueuria, etc.

V. CURUTZIAN JOSTIARENAA.

Josiric icusita
Jesus Curutzian,
¿Cer jazo zan, Maria,
Zure viotzian?
Aita gueuria, etc.

Escutapen atseguintsubac III

DOMECA, EGUBAZTEN TA ZAPATURACO.

I. JESUSEN VIZTUERA BARRI-JARENA.

Irugарren eguna
Jesus viztu zana,
Illaren amarentzat
Au bai atseguiña.
Aita gueuria, etc.

II JESUSEN CERURA IGOERIAREN.

Jesus cerura dua,
Maria laztana,
Zure poz atseguiña
Zabaldu gugana.
Aita gueuria, etc.

III. ESPIRITU SANTUBAREN ETORRIERIAREN.

Poz ta atseguin barrijac

Zuretzat, Marija,
Espiritu Santuba
Dalaco etorrija
Aita gueuria, etc.

IV. MARIAREN CERURA JA-
SOERIARENA.

Aingueruben artian
Oh, ce atseguña!
Cerura jaso dabe
Betico Erreguiña.
Aita gueuria, etc.

V. MARIARI ARO EDO COROIA
IMINTIARENA.

Eder inguraturic
Amaren buruba,
Gueuri deiez daucagu,
Ester apainduba.
Aita gueuria, etc.

KYRIELEISONAC LATIÑEZ.

Kyrie eleison.

Christe eleison.

Kyrie eleison.

Christe, audi nos.

Christe, exaudi nos.

Pater de cœlis Deus

Miserere nobis.

Fili, Redemptor mundi Deus,

Miserere nobis.

Spiritus Sancte Deus,

Miserere nobis.

Sancta Trinitas unus Deus,

Miserere nobis.

Sancta Maria, *Ora pro nobis.*

Sancta Dei genitrix, Ora

Sancta Virgo Virginum, Ora

Mater Christi, Ora

Mater divinæ gratiæ, Ora

Mater purissima,
Mater castissima,
Mater inviolata,
Mater intemerata,
Mater immaculata
Mater amabilis,
Mater admirabilis,
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo prudentissima,
Virgo veneranda
Virgo prædicanda,
Virgo potens,
Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiae,
Sedes Sapientiae,
Causa nostræ lætitiae,
Vas spirituale,
Vas honorabile,
Vas insigne devotionis,

O R A P R O N O B I S.

Rosa mystica,
Turris Davidica,
Turris eburnea,
Domus aurea,
Fœderis arca,
Janua cœli,
Stella matutina,
Salus infirmorum,
Refugium peccatorum,
Consolatrix afflictorum,
Auxilium christianorum,
Regina Angelorum,
Regina Patriarcharum,
Regina Prophetarum,
Regina Apostolorum,
Regina Martyrum,
Regina Confessorum,
Regina Virginum,
Regina Sanctorum omnium,
Regina sine labe originali con-
cepta,

O R A P R O N O B I S.

Agnus Dei, qui tollis peccata
mundi, *parce nobis, Domine.*

Agnus Dei, qui tollis peccata
mundi, *exaudi nos, Domine.*

Agnus Dei, qui tollis peccata
mundi, *miserere nobis.*

¶. Ora pro nobis, sancta Dei
Genitrix.

R. Ut digni efficiamur promis-
sionibus Christi.

O R E M U S .

Gratiam tuam quæsumus, Do-
mine, mentibus nostris infunde;
ut qui, Angelo nuntiante Christi
Filii tui Incarnationem cognovi-
mus, per passionem ejus et cru-
cem ad resurrectionis gloriam
perducamur. Per eumdem Chris-
tum Dominum nostrum. Amen.



MEZIA.

MEZA AURRETICUA.

Oh, Jesus, benetan maitegarrija! Beraz, ez zan aspertu zure guganaco ondo naija, curutze Santuban vicitzia gugaitic emonaz? Ez. Nai izan cenduzan ugaritu gueijago ta gueijago ceure mese-
diac, ta orretaraco icentau cen-
duzan Sacerdotiac, jarraituteco euren bitartez Curutzeco Sacrifi-
cijo andi ta zorijonecuari. Sinis-
tuten dot curutzeco Sacrificijua ta altaracua bat dirala. Zu Jesus, za-
riala Sacerdote nagusi, meza ba-
cochian sacrificuetan dozuna, ta

sacrificauba zariana. Indazu, arren, arimaco prestaera garbi bat, bat eguinic neure gogua zugaz, Eleissa Santubagaz ta zure ministro Sacerdotiagaz, irabaci dadizan meza santu onetan esquin-tzen jatazan doe ugarijac; ta egui-zu zabaldu dedilla guztieta zure erruquitasun neurri baguia. *Emen guelditu biar dozu meziaren anditasunagaz gomuntetan, ta vitzuten ceure gurarija, itzal santu ta one-raspen andi bategaz entzuteco.*

Meciaren assieria.

Aitiaren ta Semiaren ta Espiritu Santubaren icenian. Jauna, nator zugana poz ta atseguin billa; artu nagizu ceure aldetic, ta beguiratu eguidazu erruquitasun andijagaz, ta eguizu, ez nadilla na-

astau gaisquilla ta pecatarijacaz. Zu zara nire sendotasuna, ta ez zaitez aldendu niganic. Arguitu eguiuz nire beguijac urreratu nadin zure Altara santura, nun aurquituco dodan pozquerija eguijazcua, gozatuteco beragaz zure anditasunaren aurrian. Oh, neurre arimia! Ez zaite, beraz, naibaguetu. Icharon eguizu, bai, ceure Jangoicuagan, bada aurquituco dozu beragan atseguin ta baque osua.

Confiteor.

Neure Aita chito altsuba: auzpazturic zure oñetan, nator, cerutar guztien aurrian, neure pecatubac autortutera. Neuria izan da erruba, ta guztiz erru andija, baña ezaguturic, damutu da guz-

tiz nire viotza. Doncella chito garbi, apostolu santu, ta nire ceruco onguilla guztijac; icusiric zubec nire lotsarija, jarichi eguidazube erruquija. Jauna, Eleissa santubac erregututen deutzu nigaitic. Entzun eguiuzu bere Ministro Abadia; ceñegaz batera esca-tuten deutsudan parcatu deigu-zula, berari, niri, ta guztijoi gueu-re erru ta utseguiñac.

Abadiac altara igotian.

Orretaraco, Jauna, Jesusen ira-bacijacaz bat eguiten ditugu San-tu guztijenac, ta batez bere, ara-co Santubenac, ceintzuben erli-quija edo apurrac aurquituten diran altara onen barruban.

Kirie.

Gauza guztién eguilla, erruquitu zaite ceuc eguin guenduzuzanocaz: Aita chito samurra, bigundu zaite zure semén erregubetara. Ceruco atiac edegui ceunscuzan Jesus laztana, itzuli eguizugure arimetara ceure odola, ta izan zaite euren betico garbitasuna.

Gloria in excelsis esatian.

Ceru guztijac autortu ta adierazo daijela Jangoicuaren gozotasun edo gloria, ta bere baque santubac poztu daijala lurra. Oh, Jaun altzuba! Viotzeco aleguin osuagaz, aguertu nai deutsuguz gueure lotsa on, maitetasun ta esquer

onac. Ceruco bildots garbi quenduten dituzuna guizonen pecatubac, entzun eguiuz gure erregubac. Aitaren alde escuman jarriric zagozana, erruquitu zaite gugaz. Autortuten dogu zure anditasun, dontsutasun, Jauntasun ta altsutasuna, ta zariana Jangoico bat Espiritu-Santubagaz Aitaren gozotasun edo glorijan.

Dominus vobiscum.

Jangoicuaren laguntasuna izan dedilla gugaz, eguin daiguzan alcarturic gueure erregu ta escabidiac.

Erregubac.

Eleissa Santubaren izenian, Jauña, Abadiac zucenduten deutsuz erregubac; beraz, baita nire ice-

nian bere, nasalaco Eleissaco semia. Bat eguinic neure gogua berriagaz, escatuten deutsut bere, neure, ta Eleissa guztico premiñac gaitic, ta uste dot entzuna izatia ceure erruquitasun ta Jesu-sen irabaci neurri bagac gaitic.

Epistolian.

Jangoico guztija daizuna; esan cenduban, *eguin bedi arguija*, ta beriala eguin zan. Barristau egui-zu nire ariman, orduban munduban eguin cenduban mirarija. Deseguin eguizuz illunduten na-ben lañuac, ta sortu eguizu ni-gan ceure arguitasnna. Entzuten nago orain bere Abadiaren aoz zure berbia, ta sinistuten dot. Oh, gau illun, azpiratu ta queizaturic euqui dozuna nire arima gueis-

sua! Eguijozu lecu Jaunaren verbiac emoten deustan arguitasunari. Neure griña, arrotasun, argaltasun ta mundubaren labanquerija eruac, ez al dabe ichütuko gueijago nire arimia. Ez Jesus maitia, ez.

Epistoliaz Evangelijuaren比特ian.

Jaungoico, garbitu cenduzana Isaias igarliaren ezpanac icatz issiotubagaz, garbitu eguiuz zure Evangelijo santuba adierazotera duan Abadiarenac bere; baita bere nire belarrijac ondo entzun daijen. Bardin escatuten deutsut ondo aituteco arguitasuna, ta diñuana gorde ta eguiteco indarra.

Evangelijuan.

Jauna, asco dira nire uts egui-tiac, ta eztira ez jaquinez, ezpada daquidana ez eguiñez. Ciur nago, sinistuten dodana; baña urrin dabiltz nire eguitadac sinistuten dodanetic. Badaquit, barriz, si-nistutia asco ez dodana; bada de-moniuac bere sinistuten dabe. Baña cetaraco dabe alaco si-nis-tia? Eleissiac gura dau orain, nic zure Evangelijo santuba entzutia, ta adierazoten deust onetan, beti egon biar dodala prest zuzendu-teco neure eguitada guztijac, berac emoten dituban neurrijetatic. Eguizu, bada, neure Jaun ona, gorde daidala aguinduten jatana, ta ez nadilla aldendu betico gal-dubidetara.

Creduan.

Sinistuten dot Jaungoico bacar bategan, ceñec ez daucan naturaleza edo izate bat baño iru Personetan. Sinistuten dot irubatasuneco lelengo Personia dala Aita, ceru, lur, ta icusten diran ta icusten ez diran gauza guztien eguillia. Sinistuten dot bigarren Personia dala Seme bacarra, Aitaganic sortuba, ta ez eguiña, ta beragaz izate edo sustancija batecua, cein gugaitic, ta gu ceruratutia gaitic, jatsi zan cerubetic, ta eguin zan guizon Maria doncelliaren erraijetan Espiritu-Santubaren eguitez; izan zala necatuba, curutzian illa, ta obituba Poncio-Pilatosen aguindubaren beian: irugarren egunian viztu za-

la illen arteric. Sinistuten bere dot, igon ebala cerubetara, nun daguan jarriric bere Aitaren alde escumatatic, andic etorrico dala bigarrenian, itzal ta edertasunez inguraturic, vici ta illei betico erabaguija emotera, ta bere Erreinubac ez dabela azquen ez amariic izango. Sinistuten dot irugarren Personia dala Espiritu-Santuba, ta datorrela Aitia ta Semiaganic, ta daucala euracaz izate bat. Sinistuten dot Eleissa bacar, Santu, Apostolicu, guztientzacuan. Sinistuten dot ta autortu, daguala bautismo bat pecatuben parcacineroeraco. Icharoten dot illen viztuera barrijan, ta beti iraungo daben vicitzan.

Ofertorijo.

EDO OSTIJIAREN ESQUINSARIJAN.

Aita Ceruco, Jaungoico altsu ta beticua, artu eguizu Abade Jau-nac ceure seme laztan Jesusen icenian esquintzen deutsun Osti-ja garbija: eruan eguizu ontzat azartutia ni bere, beragaz batian esquintzen neure pecatuben or-dañian; baita bere esquintzen deutsut arima leijal vicijac ta illac gaiti. Guztijoc zucenduko al-gara betico zorijontasunera.

Caliciarenian.

Esquintzen deutsugu, Jauna, Caliza osasuntsbau, escaturic zu-re guganaco erruquitasuna; egui-zu, bada, esquintzari onec igon daijala zure ceruco jarlecura gui-

ño, izan dedin gure ta beste guztien zorijontasunera.

Ofertorio

EDO ESQUINSARI OSTEKO ERREGUBAC.

Artu eguiuz, Jauna, gure vio-tzac eguiten deutsubezan esquin-tsarijac. Damuturic gagoz gueure pecatubacaz. Entzun eguiuz er-ruquiz gure arima gueissuen ciz-purubac. Eta zu, Espiritu vicitza emollia, jatsi zaite gure doien ga-ñera, ta dontsatu eguiuz, esquinijac izan ditian duiñtasunez Aita beticuaren anditasunaren aurrian

Atzamarrac garbitutian.

Garbitu eguiuz, Jauna, gure arimac, urreratu gaitian zure mai Santura. Nai dituguz entzun zure

anditasunac, ta adierazo zure miretak. Ez eguzuz ichi gure ari-mac, galdu ez ditian gueistuen artian, ceintzuben escubac dago-zan loitubac. Nai deutset jarrai-tu bide zucen ta garbije, ta la-gun zaquidaz arren. Alan maite-tuco zaitut beti beti zorijoneco guztien artian.

Orate fratres.

Erregutu daijogun guztijoc Jangoicuari, ta alcartu daiguzan gueure gurarijac, ontzat artu dai-jan esquintzen deutsagun Sacri-ficio au.

Erregu isillac.

Lurreco guda edo guerrac goi-turic, erbeste onetaco naibaguiac igaroric, betico atseguiñetan atse-

reten zagozen arima zorijonecuac, ta batez bere, gaur icentetan zaituguzanac, batu egui Zubez ceuben erregubac gueuriac gana, ezagutu daiguzan laster ceuben bitartetasun andijaren sari ugarijac. Baña, azquenic, Aita beticua, iminten dogu icharopen ta poz guztija esquintzen deutsugun ceure seme bacar ta laztanaren Sacrificijuan. Beguira gure Aitari, ta erruquitu gugaz bere semiacaz.

Prefacijuan.

Jangoicuaren ontasunaren poz andi bategaz, jaso daiguzan gueure viotzac ceruraguiño, emoteco esquerrac eguin deuscuzan mesede andijac gaitic. Artu daigun bere anditasunaren itzal eguijazco bat, ta billatn daigun Jesu-

Cristo gueure Jauna ta bitartecua,
beragana urreratu, ta Ainguera-
bacaz batera esateco: Dontsuba,
dontsuba, dontsuba exercitu edo
talda guztien Jaun eta Jangoicua!
Cerubac ta lurrac adierazoten
deuscube bere anditasuna.

Canonetic aurrera.

Zure aurrian auzpazturic, oh,
erruquiz beterico Jauna! erregu-
tuten deutsugu ontzat artu daizu-
zala gure doe ta esquinsarijac.
Batez bere erregututen deutsugu
ceure Eleissa Santuba gaitic; gor-
de ta zaindu eguiuzu aguinduric
daucazun leguez. Egeneric egu-
nera batubago eguiuz bere se-
me guztioen viotzac gozatu gai-
tian baque santu baten. Beguiratu
eijkezu erruquiz Aita santu Er-

romacuari, cein dan Eleissa guzti-
co buruba, gure obispo Jaunari,
erregueri, ta arima leijal guztiei.
Gomuntau bere zaitez erruquiz,
gueuc escatuten deutsugun ari-
ma guztijacaz, ta meza santu
onetan aurquituten garianocaz.
Ondo ta arguiro dazauzuz guz-
tioen premiñac, ta eguizu, icusi
daiguzala laster gueugan zure on-
tasun ta erruquitasunaren onda-
sunac. Jauna urreratu gara alta-
ra santura zure siniste ta icha-
ropen andi bategaz. Badazaugu
gueure argaltasuna, ta deituten
deutsegu zugan ceruban gozatu-
ten dagozan arima zorijonecuei,
bat eguin daijezan euren erregu-
bac gueuriacaz; bada alcaturic
guztijoc, ta Jesus zure seme ba-
car ta laztana buru dogula, *{cer}*

icharon ez daiquegu zure ontasunetic? Oh, Aita beticua! Zuc emon ceuscun ceure seme maite ori gure argaltasunen jasogarritzat, naibaguetaco atseguintzat....., ta erbeste onetaco negar mueta guztijen pozgarritzat: emon ceuscun, bai, gure buru ta Aitatzat, gura cendubala guztiocaz artalde bat, Artzain bera zala, eguitia: emon ceuscun, bai, gueugaz ta gueuretzat izateco, ¿ta, noc ezagutu eugezan onetaraco artu cenduzan asmo santubac? Oh, lurreco jaquiturija argalac lotsatuteco, jaquiturija neurri baguia!

Consagracionuan.

Sinistuten dot viotz osuagaz, Jesusec, ill aurreco egunian, artu ebala oguija bere escubetan, ta

bedeincatu edo dontsuturic, zati-
tu, ta emon eutséla bere escola-
rijei, biurturic, bere berbén in-
darrez, bere gorputz eguijazcuan.
Bardin sinistzen dot, artu ebala
apal ostian calicia ardaugaz, ta
dontsuturic, ta biurturic bere
odolian, emon eutsela edaten.
Oh, mirari guztien mirarija! Oh,
Jesusen berbén indarra! Orain-
che bere, Abadiaren aoz esanic,
barristau da jazoeraric zorijone-
cuen au. Ay, noc emon leijozan
Jaunari duiñeco ezquerrac.

Canonaren bigarren zatijan.

Zuri, bai, anditasun guztien
anditasuna, Jangoico altsuba, es-
quintzen deutsugu ostija benetan
garvi, benetan dontsu, ta orban
bague au, (cein dan eguijazco

ogui vicigarrija, ta eguijazco caliza osasunecua) Jesusen neque, eriotza, viztuera barri, ta igoera ceruracuaren icenian. Eta, Jauna, baldin Abel, Abraham, ta Melquisederen esquintsarijac, ain ontzat, artu bacenduzan; ¿cer icharon ez daiquegu orain esquintzen deutsugun sacrificijo onegaz, ceñen queriza ta irudi labur batzuc baño ez ciran lenagoco guztijac? Bai Jauna, bai: esquintzen deutsugu gure pecatubac garbitutia gaitic zatituba izan zan Jesusen gorputz ederra, ta gure arimac garbituteco emon zan bere odol erru baguia: esquintzen deutsugu bere viotz gure maitetasunez edeguija. Betor, bada, bera gaitic gugana orainguiñoco gaistaquerijen parcamena betor aurrerun-

tzian ez eguiteco indar ta laguntasuna; betoz, bai, zuc berari deutsazun maitetasunac guretzat escatuten deutsuzan doe erruquitsu guztijac. Erruquitu bere zaite Garbi-lecu edo Purgatorijoco su-tan dagozan arimacaz, ta eguzu Jesusen odolagaz erosirico arima aréc, icusi daijela laster zure ar-pegui ederra.

Oh, Jesus benetan maitegarrija! Celan emon neizuz deustazun maitetasunaren esquerrac? Lagun zaquidaz, arren, nic bere aleguiñez ta viotz osuagaz maitetu zaidazan. Ez ditiala izan nire verbac, ascorenac leguez, azaleco ta myin utsecuac, ezpada aiñ eguiazcuac, ceinda lenago emongo dodan neure vicitzia, ta galdu gauza guztijac, zure gogoco ez dan gau-

zaric, eguin baño. Bai, neure Jesus laztana, bai.

Pater nosterrian.

Aita gueuria, Cerubetan zagozana, etc.

GUERO.

Atera gaizuz, Jauna, gueure gach ta argaltasun guztijetatic, ta eguizu, aguintau daijala gure ari-metan baque eguijazcuac. Imin-ten deutsuguz bitartecotzat ceru-betaco Erreguiña, San Pedro ta San Paulo Apostolubac, ta zori-joneco guztijac. Alan escatu, ta icharoten dogu baque sendo ta galduco ez dana.

Agnus Dei esatian, ta guero.

Jangoicuaren Bildots, munduko pecatubac quenduten dituzuna,

erruquitu zaite guzaz; Jangoicua-ren Bildots munduco pecatubac quenduten dituzuna, erruquitu zaite guzaz; Jangoicuaren Bildots munduco pecatubac quenduten dituzuna, emon eiguzu baquia.

Aspertu baga escatuco deutsugu, Jauna, zure baque zorijone-cua; bada, esan ceuntsen Aposto-lubei, baquia emoten deutsubet, baquia isten deutsubet. Eguizu, bada, zure seme alaba guztijoc alcarturic vici gaitiala, ta baturic guztijoc Jesus maitiagan. Ez dei-jela izan lecuric gure artian are-rijo gueistuaren asmo asserracor-rac, ez pecatubac, ceñegaz ecin gordeco dan baque eguiazcua; ez-pada Jesusen maitetasun, ta ari-maco garbitasunac, ceintzubac di-ran betico baquiaren bai ciurrac.

Comuniñoe aurrian.

Jesus maite, ceure eriotziagaz munduba viztu cendubana, ceure gorputz ta odola gaitic, atera naizù pecatu ta gach guztijetatic, ta eguizu ez nadilla iños aldendu zuganic, ezpada vici nadilla iratsiric zure aguindubetara.

Zure gorputz ta odol eguiazcua, ceintzubac artu gura nituquian, (ezagutzen badot bere neure duin baguetasuna) ez ditiala izan nire erru gueijagoraco ta caltian, ezpada, zure erruquitasunez, izan dequidazala neure oneraco, ta betico vicitza zorijonecuaren jaube izateco.

Comuniñoian.

Oh Jesus laztan, gure janari ta

edari eguiazco eguinic, Altaraco mai santu orretan zagozana! Eta nor urreratu leitequian orain, Abadiagaz batera, zu artutera! Eta noc euqui leizan ataraco Aingueruben garbitasun ta maitetasun erria! Ez eguizu, Jauna, ichi Judas laco viotz loiric zugana ureratuten. Zabaldu bedi munduko bazter guztijetan zure anditasunaren entzutia, ta ezagutu bedi, aldan añán, zugaz bat eguiteko escatuten dan prestaera arduratsuba. Izan zaite guretzat betico vicitzia, ta ez eguiuzu ichi, gueurre lotsabagaquerijaz, gaisqui prestauric iños zugana elduten, jaquinic ciur, jan ta edango dogula betico galdu mendijaren epai ica-ragarrija.

Azqueneco erregubetan.

Ceruco Erreguiña, Apostolu, ta zorijoneco guztijén icenian, ta batez bere gaur Eleissiac icentetan diturbanenian, escatuten deutsugu, zabaldu daizuzala gugana Meza santu onetan escatu deutsuguzan mesediac. Izan bedi beti gugaz zure erruquitasuna, gugaitic bere odola emon eban zure seme Jesus gaitic. *Bai, arren, bai.*

Ite Missa est esatian.

Esan dá Mezia, emon daijoguzan Jangoicuari aleguiñezco esquerrac bera entzuteco eria emon deusculaco.

Azqueneco bendicinoia.

Aitaren, Semiaren, ta Espiritu

Santubaren dontsutasuna jatsi dedilla gugana, ta egon dedilla beti gugaz. *Bai, arren, bai.*

Azqueneco Evangelijuan.

Jangoico erruquiorrac aguinduric guizonei bere Seme bacarra araguituta guizon eguitia, urratuteco pecatubaren cateiac, ta deseguiteco bere illuntasunac; icharoten zan poz andijagaz guizonén zorijontasun bacar au. Anchinatic adierazo eben igarla santubac bere etorreria, nos, celan, ta cerceridade guztijaquin. Jangoicuaren seme bacar au zan beti beti Jangoicua; eguañ Jangoicuagan, ta bera zan Jangoicua. Berac eguin cituban gauza guztijac, ta ez zan bera baga ecer eguin. Elduric icentaurico egunac, eguin

zan guizon, ta zabaldu cituban, pecatuco bidei aldendu ta cerucuari jarraituteco, arguitasunac. Orregaitic, mundutarrac ez eutsén ezagüera ta abegui onic eguin. Baña, beste batzuc jarraitu eutsén, ta bete cituban onéc bere doiacaz, ta eguin Jangoicuaren Seme. Jarraitu daijégun, bada, guc bere, bere eracutsijei, izan gaitian betiraunian bere zorijontasunen jaube.

Meza ostian.

Guizonac esan al baño erruquiorrago zarian Jesus laztana! Zurturic dago nire arimia; arrituric nire viotza! Ni bassen pecatarí andi bat euqui dozu Ainguerubac mirarituric beguiratzen deutsén Sacrificijo Santuban! Gueija-

go diñot. Ni gaitic esquini izan zara altaraco may santu orretan! ¿cer izango ete da zuc aimbeste maite dozun nire arimachu onegaz? ¿Cer izango ete dá, diñot, zure odolagaz erosi ta garbitu ceunstan arima onegaz? Ecin aspertu nas esaten: ¿cer izango ete dá beragaz betiraun edo eternidadian? ¿Galduco ete ditut zure ontasun, mesede ta erruquitasun ain ugarijac, eta erátsi nire gañera beti betico asserre ta madariacinoiac? ¿Aldenduco ete nas gueijago zure bide garbi ta zuce netatic; edeguico ete deutsadaz pecatubari neure viotzeco atiac, ta alde eraguin zure maitetasunari? Ez, arren, Jesus ona. Edegui dedilla lúrra, ta iruntsi naguijala, edo ceruco subac quiscaldu ala-

co esquergabetasunic eguin baño
lénago. Sendatu nagizu ceure
odolagaz, emon daidan pozic, biar
bada, neure viotzeco azquenéngo
odol tantia pecaturic ez eguite
arren. *Bai, arren, bai.*

CONFESIÑOERACO ERREGUAC.

Examiña edo arimaco azterrena baño lenagoco
erregubac.

Jangoico andi, pécatarijei parcatuteco macurturic zagozana; ezarri eguiuz niganuntz zure begui erruquitsuboc. Espiritu-Santu, arguitasun guztien iturburuba, eguizu, ezagutu daidazala neure erru ta utseguitiac, ta ez nadilla aztu euracaz confesoriaren oiñetan. Ez nadilla ichutu neurecoitasunez; edo bestén eguitada edo exemplu charracaz; ez diabrubaren asmo gueistoren bategaz. Mese de onen esque nas, bada dazaut, asco estaldu leidala neure argaltasunac. Orretaraco iminten

dot vitartecotzat neure ama laz-
tan ta garbija, ceñegan daucadan
iminiric icharopen edo esperan-
tza osua.

Arimaco azterrena.

*Astiro ta arin aringa baga, eguin
biar da arimaco azterrena, gueldi-
turic, gogora ecarten gueijago edo
guichiago premiña dan aña, ta ate-
ra aleguiñez, cembañ bidar eguin
dan onelaco edo alaco pecatuba.*

Ara nundic. Ichi bacenduban
eguin baga urteco confesinoia,
edo Pascuaco comuninoia. Lo-
tsaz pecatubac ichi, edertu, utse-
ra bota, edo guichitu bacenduzan
edo ezbaceuncan damu, ta ondu-
teco gogo sendoric, cerren, ordu-
ban barristau biar daben confe-

sinoiac. Ichi bacenduzan penitencijac eguin baga, ta onec baciran osagarrijac; esateraco; ez sartuteco ain echetan; urlijagaz bacarrian verbaric ez eguiteco; alaco echetic urteteco, pecatu bacochian, au edo bestia eguiteco; dantza, jolas ta erromerijetara ez juateco; onen besteric arenbestera confesetaco, etc.

Fede edo sinistia galdu, edo borondatezco ez ta baidatan egon zarian. Sorguinquerija, aztuben barri, bendicinoe edo dontsutsun guzurrezco, ta alaco gauza bide bagacuetan uts eguin badozu. Naguija izan bazara doctrina edo icasbide jaquin biar diranetan.

Galdu badozu icharopena; edo icharon badozu bacarric ceugan, edo bacarric Jangoicuac, ceure aldetic aleguiña imini baga, ceruraco zaitubala.

Izan badeutsazu gorrotoric Jangoicuari atsacaba edo beste gauzaren bat gaitic, ta esan badozu gaisqui bera edo bere Santubac gaitic. Egon bazara lotsa guichigaz Eleissan, ta batez bere soñeco nasai usañecuacaz.

Guzurrezco juramenturic eguin, edo eraguin badozu; edo gauza deungaren bateraco. Ceure mendecuei onetan gaisqui eracutsi badeutsezu. Promes edo esquin-zarijac bete ezpadituzu, edo gorrotoz eguin badituzu, esateraco

arguija imini, edo diruba emon nor baiti caltia etorri daquijon. Eguin badozu esquintsarija erro-merijaco olgantza nasaijetan ibil-te arren. (Gurasuac; ez arren ja-ramonic eguin alaco, zuben se-me alaben ta mendecuen voto edo esquintsarijei, Ez dau Jangoi-cuac gura arimaco caltian izango dan esquintsariric, ta alan, ez ichi eguiten, ta betetan: ondo ez dan gaucia). Bota badeutsazu bi-raoric ceure burubari, seme ala-bei, gurasuari, edo besteri, ta ce gorrotogaz.

Eleissiac dirautsun egunetan, al dozula, mezia entzutia ichi, edo mendecuari ichi eraguin ba-deutsazu, edo egon bazara mezan

gogo ta ardura charragaz. Biarric eguin edo eraguin badozu jai osuetan; ta aguirijan eguinic, cer esanic emon badozu. Eguin biar dituzula, ausi badituzu Eleissaco barubac. Araguiric jan badozu, ecin jan ceunquian egunetan; aragui ta arrainic neste jan, edo eraguin badozu; onez ostian, garizuman ezne ta arrautzaric bulda baga jan badozu.

Gurasua bazara; seme alabei adiuntzaz doctrinia eracutsi, ta eleisbide ona emon ezpadeutsezu. Euren gaisqui eguiñac castigau ezpadituzu: pecatuco bidetan, edo lagun gaistuacaz ibilten ichi badeutsezu. Ezcontzaco verbac emonic, alcarren echetara,

edo alcarragaz egoteco lecura juaten ichi badeutsezu; ta berarizco ardura bat euqui ezpadozu verba aá emon ezquiero, arimaco calteric izan ez dedin. Errromeria, dantza, ta nasteco jolasetara juaten ichi badeutsezu. (Orain artecua bardin aitu biar dá mén-deco guztijacaz). Taberna, joco, ta bide gaistuetan zabaldu badozu seme alabei jaoquena. Lagundu ezpadeutsezu, aleguiñez, Jangoicuac deiturico vicitza edo estadura.

Seme edo alabia bazara: galdu ete dozun gurasuei zor jaquen lotsia, ta maitetasuna; edo ucatu badeutsezu laguntasuna euren premiñetan; bete ete dituzun contratua ta testamentuko aguin-dubac: galdu badozu euren mem-

petasun edo obediencia, emon badeutsezu naibagueric euren barri baga ezcontzaco verbia emonda; nai ibillera charracaz, bada ibillera charra berez izan arren pecatu, gurasuaren aguin-dubaz bestera danian, dago bigarren pecatuba.

Aguindu onetan áztertuco ditube euren arimac senar emazte, ugazaba, aguintari, ta landun guztijac, bacochari jaocan leguez.

Il badozu inor, edo opa izan badeutsazu eriotza edo gachic; nai viotzez poztu bazara inoren caltiagaz. Izan badozu asserre, burruca, maquillacaric, edo jarri bazara ataraco bidian: ucatu ba-deutsazu asserre ostian agurra,

ta biar dan artu emona. Ceure erruz seiñic galdu, edo emon badozu ataraco bideric. Ceure burubari calteric eguin edo opa izan badeutsazu. Orditu bazara; oituraz bada, ta ezaguturic taberna, onra, eztegu ta piestara juanagaz jausten zariala errencura negargarri orretan, esan biar da cembañ bidar izan zarian alaco lecubetan beti jausi ez arren; ta alaco lecubei ichi baga ez zara ondo confesauco.

Eguin badozu araguizco peccatric, edo opa izan badozu, edo erabilli badituzu borondatez gauza ezañac goguan: beguiracune, ta quiñu gueistuac, tiraca, bultzaca, chichimurca, oratuca, mo-

suca ta onelaco guizon ta eman-
cumen arteco gauzac eguin, edo
lecuric emon badeutsezu. Izan
bazara pandango, dantza nastu,
jolas, biguira, ta erromerija na-
saijetan. (Eguijezu; arren, betico
agur bat onelaco ibillerei. Go-
munta zaite ceure arima eder, ta
Jesusen odolagaz garbitubaz, ta
alde eguizu loiquerija, ta berde-
querijaco batzarretatic. Ahi cem-
batec negar eguiten dituben in-
fernuban orrelaco ibiltiac!) Eguin
badozube guizonezcuaç alcarre-
gaz loiquerijaric, ta bardin ema-
cumiac. Eguin badozu ceure gor-
putzian escuca, beguiracuné zan-
tar, edo atseguin loico gauzaric.
Jausi bazara pecatu loijan abe-
riacaz. Gaisqui eguin, edo eracu-
tsi badeutsezu umechubei. Ezan

badozu verba, canta, ipuin, edo jazoera loi, berde, ta bide charre-coric, ta cembat lagunen aurrian: egon bazara gogoz edo barrez entzuten, ta galerazo ezpacenduban al izanic. Billatu badeutsazu iñori gueistaquerijaraco lagunic, edo emon echian ataraco lecuric. Eu-qui badozu echian biguira edo batzar nasairic.

Aztertu biar da seigarren aguindu onetan izan ete diran pecatubac ezcondu, senide, edo garbitasuna esquiniricuacaz, edo izan badira eleissan.

Ecer ostu badozu, ta izan bada indarrez: eleissan, edo eleissaco gaucia bazan ostuba. Ecanduz ostu badozu, puscaca izan arren,

pisu, neurri edo bestelan. Calteric eguin badozu solo, baso edo nunbait. Charra ontzat emon, ardaudi ura bota, galurunari arto uruna, edo onelacoric eguin badozu salduteco. Lárreguijan imini badituzu eche, ta solo errentac. Eruan badozu usura edo irabaci chárric diruba edo beste onelaco gauzaric aurrez emona gaitic. Ostu badeutsazu guraso edo ugazabari gari, arto, edo beste gauzaric. Ostuten lagundu, edo estali badozu. Gorde badozu ceuretzat billaturico gauzaren bat, jaquitera eguin baga norena dan, edo ondo itundu baga confesore edo jaquitun bategaz. Isten badi-tuzu zorrac biurtu baga, naguitasun ta ardura charrez. Guichia-go edo chárragua emon badeu-

tsazu amarren edo primicijari: ereitecua atera, edo alaco lapur-retaric onetan eguin badozu. Iñori calteric eguin badeutsazu ceuc, edo ceure erruz, ceure mendeco edo ganadubac. Iñori auci oquerric emon, edo puztu badozu ataraco.

Guzurric esan badozu, ta izan bada iñoren caltian. Gauza char-ric iñori asmau edo ezarri badeu-tsazu. Iñoren gauza char issille-co ta guichic daquijana, ceuc entzun icusi, ta alan izan arren, besteri esan badeutsazu, edo go-goz entzun badozu. Eguin bado-zu iñor gaitic sayo edo juzgu chárric, ceure naiz, ta berac ata-raco bideric emon baga.

Examina ostian damua viztuteco erregeubac.

¡Ay neure Jaungoicua! ¿Nun
neucan nic sentzuna pecatu egui
nebanian? ¿Nora beguira nen
guan zure ontasunari bidebague
tasun ain esquergac egui neu
tsazanian? ¿Cer egui dot nic?
Pecatua gaitic jarri naz zure are
rijo eguiñic... galdu dot zure se
metasuna... galdu dot ceru eder
ra... ezaindu dot neure arimia...
eta guelditu naz betico infernu
raco epaija neugan dodala.

Pecatn bacar bat gaitic dagoz
asco infernuco laba gorijetan.....
¿Celan bada icharon deustazu ni
ri, eguiñic aimbeste ta ain andi
jac? ¿Cembat dagoz orainche in

fernuan erretan, nic baño pecatu
guichiago eguin dabenac? ¿Eta
cer izango zan nigaz, ta nun
egongo nintzateque orain, quen-
du izan baceust vicitzia pecatu
eguin da laster beste ascori le-
guez? ¿Eta cer icharon neique
biurtuten banaz lengo pecatue-
tara?

— ¡Ay Jauna! ce larri ta ce icara
naucan neure pecatuen gomutiac!
Oh ontasun neurribagacua! Ce
prestueza, ce billaua, ce citala
izan nazan zugaz! Zuc ni ecere-
cetic sortu ninduzun: zuc cristi-
ñau eguin ninduzun: zuc alde
guztijetatic oneraz ta mesedez
bete nozu.

Eta mesede onec guichi balira,
zu nigaitic jatsi ciñan cerutic
lurrera, nigaitic araguiz jantsi ci-

ñan: nigaitic igaro cenduzan aimbeste neque, atsacaba, gose ta egarri: nigaitic bota cenduban aimbeste icerdi: nigaitic eguin cenduzan aimbeste barau: nigaitic isuri ta bota cenduban ceure odola, ta emon cenduban ceure vicitzia curutze baten josiric. Eta nic, esquergaistoco onec iclean erantzun deutset aimbeste amodijo ta mesede ecin andijaguai?

¡Oh neure Jaungoico guztiz on ta maitia! icaraturic ta lotsaturic nago zure aurrian! Maitetu biarran, bete zaitudaz iraiñez, bidebaguetasunez ta charqueriaz. Ase ta beteta arren neure gurari citalac, eguin ditudaz sarritan zure ontasun neurri baguiac gura ez cituzan gauzac; atsea emon deutsut, ez dot gura izan egon zure

gracijan, ta izan zure adisquide. ¡Nire zorigaistocua, confesau baño lenago illgo banintz! ¿Celan bada eguin dot pecatu aimbeste bidar? ¿celan asartu naz ausiten zure legue ta aguindubac?

¡Ay Jauna! Oba zan jaijo ez banitz pecatu eguitecotan, ta gurago neuque ill banitz zu ofendidu baño lenago! Parca esque najaotsu, ta duiñ ez banaz bere icharoten dot parcatuco deustazula ceure ontasun amai baguia gaitic. Parcatu eguidazu bada, eta cintzotasunic andijenagaz emoten deutsut berbia ez gueijago peccatric eguiteco: pecatuen bide guztijetatic alde eguiteco; neure vicitza gaistua onduteco; eta vijotz guztitic zu maitetuteco.

Confesiño osteraco erreguba.

¡Oh Jesus gozotasun guztien gozotasuna! ¿Ceñec bestec emon eusquion nire viotzari onelaco poz ta baquia? Orain nire ari-miac, quenduric pecatubén astuntasuna atseren dau zugan. Bai, edegui deutsez atiac bere Aitaren echian, ta aurquitu ditu iñun ez laco ondasun ta atseguiñac. Ez naizu, bada, ichi Jesus ona, ta ez zaitut ichico. Lagun zaquidaz iga-ro daidan neure vicitza guztija zure mesediac aztertu, ta esquer-rac emoten. *Bai, arren, bai.*

Comuninoe aurreco erregubac

¡Oh neure Jaungoicua, neure Jaungoicua! Nire arimiaren maítetzalla eguiasco ta bacarra! ¿Cergueijago eguin ciñaqne eracarteco ni zu maitetutera? Ez zan zurtzat asco izan nigaitic illtia: gura izan cenduban guelditu Sacramentu andi onetan, emoteco niri zarian guztiori, eta batuteco ceure vijotza neure vijotzagaz, ni laco gaisto ta esquer charreco batenagaz. ¡Oh amodijo neurri bagua! amodijo amai bagua! Jaungoico bat emon gura jatala niri...

Neure arimia ¿sinistuten dozu au? bada cer eguiten dozu? ¡Oh Jaungoicua, Jaungoicua! Oh amodiju! Zu zara nire amodijo guz-

tiaren duiña: zugana zucendu
biar dau nire amodijo guztiac.
Nic maite zaitut neure vijotz guz-
titic, maite zaitut gauza guztien
ganian, maite zaitut neu neurau
baño gueijago. ¡Oh, eracarri al
baneiz Adanen seme alaba guz-
tiac zu maite izatera duin zarian
beste! Ay, noc leusquizun Sera-
finac deutsuben amodijua! Andra
Mariac, neure eta ceure Amac
deutsun amodijua! Lurreco gau-
cetaraco amodijuac, urten egui-
zube nire vijotzetic: amodijo eder-
raren Ama Doncella garbija, la-
gundu eguidazu ametan araco
Jaungoico ain gura cenduquena
guztiac maitetu daijeela.

Beste erregu bat.

¡Oh Jaun andi, beguiratuagaz beste baga, ceruac eta lurrac ica-ratuten dituzuzana! Jaun andija neurri baga, baña nire erruquiz aspiratuta guelditu ciñana altara-co mai santuan eguijazco janari ta edari eguiñic! ¡Ay Jauna! ¿Ce-lan azartuco naz ni zugana? ¿Ba-ña celan azartuco ez naz, baldin ceuc deituten banozu? ¿ondo ja-quinic nire argaltasunac orregai-tic billatzen banozu? Banator Jau-na, banator; ¿bada cer eguin dai-quet zu baga? Zukan sendatu biar-dau neure arima argal, erquin ta-cadenac. Banator..... baña, Ain-gueru ederrac, zatocee laster ni-gana, ta prestau eguizubé vijotz

errucarri onetan, ceuben Erre-gueri jaocan vicilecuba... ¡Ay! ta viztu egui Zubé nigan egarri andi bat, edan daidan ugari bere bijotz garbico iturri gozuan.

Comuninoe osteraco erregubac

Beraz zu, Jesus ceñentzat ez diran eder asco cerubac eurac, etorri zara orain nire viotzeco eche ez euqui edo pobre! Ay ene! ¿Ez da nire gorputza carcela ustel bat, ta nire arimia pecatuban sortuba? ¿Ez nas ni, aiñ sari zure iguesi ibilli nasana, zure bidiac uts eguin ditudana, ta aimbeste esquer char emon deutsudana? Ta, au guztijau jaquinic, zatoz nigana! ¿Cer eguin daiquet,

bada, orain nire arimia? celan maitetu daiquet biar leguez, neurre Jesus ona? ¿Celan emon neijoz duiñeco esquerrac? Ahi, eta baneuca orain lagun edo esposa garbijaren viotz samurra betico loturic guelditzeco neurre Jesusegaz! Celaco pozagaz esango neuquian: *aurquitu dau nire arimiac billatzen ebana, ta ez dá gueijago beraganic aldenduco.* Edo obato esateco: neuc billatu biar nebanac, berac aurquitu nau. ¿Baña noc ezcotu daique nire arima liorra? Noc berotu nire viotz aiñ otza? Zuc, Jesus laztana. Bai, zure escuban dagoz Saulo ta Magdalénén viotzac. Ez zaite, bada, aldendu niganic issiotu ta dontsutu baga betico nire arimia. Ez eguizu ichi bacarric, negarrez ta

umezurtz eguiñic. Erre eguida-zuz su bero orregaz neure griña ta gurari oquerrac, izan zaitian zu nire arimaco jaube ta maite bacarra. Ceuc emon ceunstan, ta aldendu bazan bere, ceuria zan, ta ceugandu dozu: eguijuzu bada lecu ceure viotz bero ta gozo orretan. Poztu zaite nire arima gueissua, poztu zaite; bada ede-guiric daucazu Jesusen viotza. Sartu zaite bere barruban, ta aur-quituco dozu biar ta gura dozun guztija. Bertan daucazu garbitasuna, gauza onétaraco azcortasuna, pecatu ta pecatuco bidén gorrotua, vicitza onian irauteco indarra, beraganaco leijaltasuna; ta berba baten, araco maitetasun bero, gach guztijac quendu, ta on guztijac emoten ditubana. Ce-

rubac, ta luurra, criatura edo
eguin guztijacaz, lagun dequida-
zala beti esquerrac emoten aim-
beste ondasunen emolliari. Alan
izan dedilla.

Esquerrac emoteco. Neure Jaun-
goicua ta néure Jauna; emoten
deutsudaz esquerrac gois onetan
eguin deustazun mesedia gaitic,
etorrijaz visitetara nire arima
errucarrija. Nic erantzun gura
neusquizu ceure anditasunari, ta
eguin deustazun mesede bardiñic
baguiari, jaocan esquer onagaz.
Baña, ¿ce esquer emon leiquezu
ni laco errucarri batec? Baldin
Tobias gaztiac ez beban beragan
aurquituten, cegaz emon esquer
duiñac San Rafaeli, beragandic

artu cituzan lurreco mesediac gaitic ȝcelan nic emongo deutsudaz biar neuquezan esquerrac, ez lurreco mesediac gaitic, ezpada emon deustazuzalaco orain janaritzat ceure gorputza eta edaritzat ceure odola?

Andra Marija neure Ama, neure vitarteco santuac, neure Angueru jaolia, Jaungoicuaren amodijuan erreric vici zareen arimaac, erdué icustera, orain eguin deustan mesede larreguija: miráritu zaitecé, eta emon eguiozuez nigaitic esquerrac.

Esquinija. ¡Ah Jauna! Etorri zarian ezquero nire arimaco eche utsera, nic esquintzen deutsut neure auquera ta borondate guztia. Zu guztiori emon zachataz niri, eto ni guztiau emon gura ta

biar nachatzu zuri: bai, nire almen ta sentsunac izan bitez onezquero guztiac zuriac, ez daguien onezquero beste gauzatan iñardun, zu alabetan baño: nire adiña bacarric izan daguidala gomutetaco zure ontasun amairic bagueagaz, eta borondatia bacarric zu maitetuteco. Baita bere opa ta esquintzen deutsut gois onetan, daucadan ta nazan guztia, neure gogoraciñuac, neure gurarijac, neure esatiac, neure eguitiac, neure atseguiñac, neure etseguitasunac eta neure auqueria. Azquenic zure escuetan iminten dodaz neure gorputza ta neure arimia.

Ontzat artu eguizu, ó ceruco erregue andija, munduan izan dan pecatariric andijenac eguiten

deutsun bere beraren esquintzarija. Bai, orain osaro jarten naz zure escu bedeincatuetan. Eguizu, Jauna, nigaz, gura dozun guztia. Erdu, ó sú garbitzallia, ó amodijo Jaungoicozcua, eta al-dendu eguiuzu nigandic zure begui arguijac damuz, gorrotoz ta igüiñez icusico leuquen guztia. Eguizu, emendic aurrera guztiau izan nadilla zuria, eta vici naitiala bacar bacarric eguiteco ta betetaco ez bacarric zure aguin-duac, baita bere zure esanac, zure gurarijac eta zure gogoco dan guztia.

O neure Ama santa Andra Marija! Eruan eguiozu ceure escu garbijetan, eta opa eguiozu Irubatasun santuari neure esquintzari au, eta alcantzau eguidazu ontzat

artu daguijala, eta emon daguidala gracia irauteco vicitza onian neure asquenengo arnasia emon artian.

Escarija. Ay neure Salbaguilla guztiz gozua! Etorri zarian ezquierro nire arimara, mesediac eguitia eta escatutia gura dozun ezquierro, banoatsu eguitera neure escabidiac. Nic ez ditudaz billatuten, Jauna, lurreco onera ta gauzac, ez escubideac, ez aguintaritzac, ez ondasunac, ez atseguiñac. Nic orain auzpazturic, eta gogoric vicjenagaz escatuten deutsudana dá, orain artian eguin ditudazan pecatu guztien amodijozco damu vici bat, euren parcaciño oso osua, aurrerantzian ez inoz peccaturic danic chiquienic bere egui-teco laguntasuna: santutasunic

andijenera igoteco, ta vicitza
onian neure asquenengo arnasia
emon artian irauteco gracija: ar-
guija ezagututeco munduco gau-
ceen ecerestasuna, eta cein duin
zarian maitetua izateco amodijo
amairic bagaco bategaz. Atera
eguidazu, Jauna, viotz au, eta
imini bere lecuan beste bat; viotz
bat, bere eraspen ta etsiguitasun
guztietan zuriaren era eracua; zu-
re borondate santuac nai dabena,
beti maite izango dabena: viotz
bat, billatuco ez dabena ezpada
zure amodijo santua.

Ez naz ni, Jauna, mesede onen
diña; baña bai bazara zu, neure
Jesus maitia; nic escatuten deu-
tsudaz ceure duintasunagaitic,
ceure Ama Doncella Marijaren
irabaci ta erreguac gaitic, eta

ceure Aita cerucuari deutsazun
amodijua gaitic.

Jesusen arimia, santutu naguizu.
Jesusen gorputza, salvau naguizu.
Jesusen odola, zure onez bete naguizu.
Jesusen pasinua, sendatu naguizu.
O Jesus ona, entzun naguizu.
Ceure zaurien artian, gorde naguizu.
Zugandic alde eguiten, ichi ez eguidazu.
Arerijo gaistoa gandic, zaindu naguizu.
Neure eriotzaco orduan, dei eguidazu.
Zugana etorten, aguindu eguidazu.
Ceugandic urrian, imini naguizu.
Santu guztien artean zu alabetaco
Betico iraunian. Alan izan dedilla.


*Emen escatu leique bacochac
biar daben beste edocein gauza,
baita bere lagun progimuarentzat,
pecatarijentzat eta Purgatorijoco
arimentzat.*

*Comuninoe ostian urrengo erre-
gu au esaten danian, irabasten da
indulgencija oso bat nai norberen-
tzaco nai Purgatorijoco arima ba-
ten ascaldiraco.*

Emen naucazu, oh Jesus ona
ta guztiz gozua, auzpazturic ceu-
re aurrian, escatuten neure ari-
maco berotasunic andijenagaz,
iratzi daizuzala nire bijotzian fe-
de, icharopen ta amodijo bicijac,
neure pecatuen damu eguijazcua,
ta euretaric emendetaco boron-
date sendo sendua; neure bijo-
tzecho garbai ta erruquiric andije-
nagaz gogoratuten dodazan bitar-
tian zure bost zaurijac, euquiric
neure beguijen aurrian, zugaitic,
oh neure Jesus ona, beste dem-

pora baten David Igarla santuac ciñuana; Zulatu deusteez neure escuac ta oñac, ta contau ditubeez nire azur guztijac.

Parcamena irabasteco, esan biar da erregu au Santo Christo baten aurrian, ta ones ganetic erregutu biar jaco Jaungoicuari Aita Santuaren intenciñuan. Onetaraco nai-cua da erregetia sei bidar Aita gueuria ta Ave Marija. Alan era-bagui eban Aita Santu Pio bederatzi garrenac 1858 garren ur-tian, Garagarrillaren 31 garren egunian.



Nai badozu aurquitu
Cerura bidia,
Maite izan eguizu
Curutze santia.

CURUTZETACUEN EGUNIBIDIA.

SARRERIA.

Lelengo belaunbiceturic, ceñatuko zará, ta esan biotzetic Neure Jesu-Cristo Jauna.

ESQUINZECO ERREGUBA.

Neure Jesus laztana, aguertu nai neuque nolabait zuganaco leijaltasuna, jarraituric gaur zure Calvarijoco oñatz edo pausubei. Eguizu, bada, irabaci daidazala onetan dagozan indulgencija edo parcamen guztijac. Erregututen deutsut ataraco, Eleissiac erregututia gura daben premiña guzti-

jac gaitic, ta niretzat zure bide
zucenei beti jarraituteco arguija.

Munduban gozatu ta
Jesusi jarraitu,
Izango ecin dana,
Daigun ezagutu.
Neque ta curutziac
Burla ta barriac
Sarri izango dituz
Jesusen semiac.





Lelengo Estacinoe edo ego-taldiya.

Eriotzaco epai edo sentencija gorra.

Curutzian ilteco
Jesus Maitiac
Cer eguin ete dau,
Neure gentiac?

*Gomunta zaite orain, ez eucala
Jesusec beste erruric gure pecatubac
bere gañian artutia baño.*

ERREGUBA.

Oh neure Jesus! Beraz zu,
entzunic Pilatosec emon daben

eriotzaco epai edo sentencija, ja-
quin arren niria zala erru guztija,
zagoz issil issillic! ¿Cer eguin dai-
quet, bada, nic orain? ¿Baña cer
eguingo dot zu baga, izanic ni aiñ
argala? Indazu, arren, zuganaco
leijaltasuna, ta neque ta curutze
guztijac zure icenian igaroteco
indarra.

Beti amaituco da onan.

*Aita gueuria, etc., Ave Marija,
etc., ta Gloria, etc.*

Guero. Jauna erruquitu zaite
pecatarijacaz. *Guztijac esango da-
bee.* Jesusen curutze ta eriotzia,
izan dedilla guretzat betico bi-
citzia.



Bigarren Estacinoe edo egotaldija.

Jesusi Curutzia imini eutsena.

Curutze astunagaz
Jesus macurturic,
Cer diñozu, bazagoz
Ceugan arroturic.

*Gomuntau eguzu emen Jesusen
umiltasuna, arturic zugaitic curutze
astuna bere solbardaan.*

ERREGUBA.

Ceruco bildost otsan edo man-sua: ñora zuaz curutze astun ori

lepuan dozula? Cec zarabiltz aiñ azpiratuba? ¿Eta zu olan icusiric, celan ez dauqué nire beguijac negarric? Samurtu ta ezcotu egui-zu nire biotz liorra, ta indazu, neure arrotasunac quenduric, zu-ri jarraituteco indarra. *Aita gueu-ria, etc.*



Irugarren egotaldija.

*Jesu-Cristo curutziagaz lelengo
jausi zan lecuba.*

Oh, cein astuna dan
Nire pecatuba!
Beguiria celan daucan
Jesus auzpaztuba.

*Beguiria orain pecatarija, ceiñ
jausija ta azpiratuba daguan zure
arimia. Icusi eguizu Jesusegan pe-
catubaren astuntasuna.*

ERREGUBA.

Cerubac ta luurrac indartuten
dituzun Jesus, zacuztaz argaldu

ta luurrera ezarrija. Curutze astuna gañian, ta ceu azpijan: cé icusgarrija! ¿Eta au jaquinic, celen bici neinde pecatubacaz dambutu bagaric? Jauna eguizu arren, ezaguturic neure erru ta uts eguitiac, jagui dedilla laster nire arimia zure bide zucenei jarraitu-tera. *Aita gueuria, etc.*



Laugarren egotaldija.

*Jesusec bere ama aurquitu eban
lecuba.*

Amaric bigunena

Nor billatzen dozu?

Ara zure semia

Láztandu eguizu

Gogoratu eguizu emen, eer iga-roco zan ama semeric laztaneen artian, aurquitu ebénian alcar Calvarijoco bidian.

ERREGUBA.

Oh, amaric errucarrijena! Celan aurquitu dozu, zuc negarrez

billatzen cenduban seme laztana! Buruba arantzaz josiric, arpegui ederra icerdi, odol ta autsez ezainduric; gorputz guztija azotez erituric: ¿Nora beguiratu cinaijo, espadauca zati osoric? Biurtu eguiuz niganutz zure begui erruquitsuboc, ta eguizu, izan nadilla ni bere seme ordeco. Bai, arren bai. *Aita gueuria, etc.*

—oxing nikkob plinprinb zinbestrog
pljibitio cijprerit? nisito non
neni ala kib. Bihotz erungel
oriontsa potedutiose oñibegus
misterioak dantza. Ibilgo gero



Bostgarren egotaldija.

*Simon Cirineua Jesusi curutzia
eruateco laguntzat emon eutsén
lecuba.*

Curutzia eruaten

Lagundu nai dozu?

Bada, nun nai nequia,

Aurquitu daiquezu.

*Aztertu eguzu orain judeguben
amorruba Jesus curutzian josteco,
bada, bidian ill ez equijuen bildur-
rez, emon eutsén laguna.*

ERREGUBA.

Oh, Jesus maitia! Celaco go-

gortasuna aurquitu dozun guizónén artian! Erruquia cirudijan laguna emotia, baña, ara emen zuganaco amorrubaren asmoric oquerrena. Guichi derichué orain artian eguin deutsubena: gura zaitubé josi eureen escubacaz curutze orretan, ta edan eragin Caliza garratzaren azquenengo ondar samiñac. Eguizu, bada, ni orainguiñocuacaz ondo damuturic, izan nadilla benetan curutze orren seme eguijazcua. *Aita gueuria, etc.*

ERREGUBA.

Op. Jesus Mihísi Geagco Bo-



Seigarren egotaldiya.

Veroniquiac Jesusi arpeguija garbitu eutsan lecuba.

Iru itzulico

Zapi zurijan

Jesusen irudija

Guelditu izan zan.

Gomuntau eguizu emen Veroniquiaren sendotasuna, judegu gorren ardura baga, azartu zanian Jesusi arpeguija sicutzen.

ERREGUBA.

Nos bait, Jesus ona, aurquitu cenduban erruquia, ta saritzat

ichi deutsazu emacume senduari
ceure ichuria iru itzulico zapijan.
Sendatu eguizu nire arimia, ta
emon eguidazu indarra, mundu-
co bildurrac osticopetu, ta zure
aguindubei jarraituteco. Marcau
eguizu nire biotzian zure ichuria,
bere gomuntia izan dedin niretzat
gauza chaar guztijetaraco gorro-
tua ta gauza onetaraco aguintia.

Aita gueuria, etc.



Zaspigarren egotaldija.

*Bigarren aldiz Jesus jausi zan
lecuba.*

*Bigarrenez Jesus
Jausi da emén
Urten pecatutic
Ainbat lasterren.*

*Beguira orain, cembañ bidar jau-
si zarian pecatuban, ta cein curu-
tze astuna izan zarian Jesusentzat.*

ERREGUBA.

*Nos ezagutuko ete dot nic on-
do neure pecatuben erruba? Icu-
siric Jesus bigarren aldiz jausiric*

ta curutziaren azpian, ¿ceren zain egon neindeque, ezagutu baga neure ichutasuna? Oh, pecatuba! ¿celan izan cinai gueijago lecuric nire arimaan? Ez, ez. Al-perric jaguico dira infernuco talda guztijac; vicico nas, bere ontasunez, Jesusegan, ta illgo nas beragan. *Aita gueuria, etc.*



oin leonibet. Iñizte zuzki, inil,
, hond. ñingo zuzki. 1123 113294190
us **Zortzigarren egotaldiya.**

*Jerusalengo alabei Jesusec berba
eguin eutsén lecuba.*

Ceri negar eguin
Ceugan daucazu,
Bada, pecatuba
Maitetu dozu.

Asco daucazu cer icasi emacume
erruquierrei Jesusec esan eutsezan
berba oneetan. Jerusalengo Alabaac, ez egui Zubé negarric eguin
nire gañian ezpada ceuben buru-
ben gañian.

ERREGUBA.

Bai Jesus maitia! Badaucat nic neuregan ceri negar eguiñ. Bada, nire pecatubac ecarri zaitubé zu taiju orretara. Eta zugan aguertu badau Aita beticuac aimbeste asserre, nire pecatubac ceure gañian artu cenduzalaco, ¿cer izango dá nigaz bere asserreco egun icaragarrijan? Eguizu arren, benetaco negarracaz garbitu nadilla, ta bere bildur santuba izan dedilla nire betico jaquiturija.

Aita gueuria, etc.



Bederatzigarren egotaldija.

Irugarrenez Jesus jausi zan lecuba

Irugarren aldiz
Jesus jausiric;
¿Ez da orregaitic
Emen negarric?

Beguire emen judegubén gogortasunari. Indargaturic Jesus, jausi zan irugarren bidarrian, ta aurquitu eban erruquia izan zan, ostico puntaz jagui eraguitia.

ERREGUBA.

Nos artian, Aita Cerucua, ichi-

co dozu ceure seme bacar ta laz-
tana guizon gogorreen escubetan?
¿Nos artian gogortuko zara seme
onentzat, nigaz erruquiorrago iza-
te arren? Eguizu, bada, ezagutu
daidala nire arimiari deutsazun
maitetasuna, ta ez daidazala gal-
du Jesusec esquintzen deustazan
bere irabaci edo merecimentu
amai bagaac. *Aita gueuria, etc.*

PIEDRA DE LA CANTERA

— 1000 —
Piedra de la cantera, piedra de la cantera.
— 1000 —
Piedra de la cantera, piedra de la cantera.
— 1000 —
Piedra de la cantera, piedra de la cantera.
— 1000 —
Piedra de la cantera, piedra de la cantera.
— 1000 —
Piedra de la cantera, piedra de la cantera.

PIEDRA DE LA CANTERA

— 1000 —
Piedra de la cantera, piedra de la cantera.



Amargarren egotaldija.

Jesus billostu ebeen lecuba.

Jantzi apaindubac

Dozuz billatzen?

Jesus billostubáz.

Ez erruquitzen.

Beguire emen celaco gogortasu-nagaz quendu eutseen Jesusi, bere gorputz zauritubari iratsita eucan jantzija.

ERREGUBA.

Ceruba izarrez, ta celaijac loraz
jantzi cenduzan Jauna, zacuztaz

billosturic! Baña, cer, billostuba? Guztijori zagoz eratzija, ta odolez eztalduric. Eguizu, billostu nadilla ni neure pecatubetatic, ta jantziric zure doe edo gracijazco soñeco garbijacaz, vici nadilla iños ezaindu baga, ta alan aguertu betico eztegubetara, deituten deustazun unian. *Aita gueuria, etc.*



Amaicagarren egotaldiya.

Jesus Curutzian josi ebeen lecuba.

Ultze gogorracaz
Jesus josiric,
Dago Lauburuban
Zuc eseguiric.

*Beguira Jesusi curutze edo Lau-
buruban escu ta oñac ultzez josiric
daguala, baña oraindic viciric.*

ERREGUBA.

Oh Jesus, ontasun guztien ga-
ñeticua! Cé neque samin ta astu-
nac ez daruazuz, curutze orretan

viciric josita zauquézala? Eguizu,
bada, ez nadilla ni bere gozatu
luurreco atseguin argaletán, ez-
pada, curutzia izan dedilla nire-
tzat poz ta atseguiñic andijeena,
alan jarichi daidazan bere ondo-
reengo atseguin amaibagaac. *Aita
gueuria, etc.*



Amabigarren egotaldija.

Jesus Curutzian ill zan lecuba.

Ilda, bada, Jesus
Gu viztuteco,
Ceruco atiac
Edeguiteco.

*Gomuntau eguiuzu emen, cé lo-
tsagarrija izan zan, mundubaren
beguijetan, lapur biren erdijan Je-
susí emon eutsén eriotzia.*

ERREGUBA.

Oh, Aita Cerucua! Ill dá zure

seme bacarra, tá ill dá guri betico vicitzia emotearren. Igaro ditu ainbeste lotsari ta neque, guri ondasun ugarijaguac iste arren. Asco dá gogortasunic. Eguizu, bada, Jesusen odola izan dedilla niretzat zure esleidubeen marquia, ta bere eriotziagaz viztu dedilla nire arimia, ostera pecatubaren eriotziagaz ez ilteco. *Aita gueuria, etc.*



— 51 —

Amairugarren egotaldija.

*Jesusen gorputz illa bere Amari al-
tzora eruan eutseen lecuba.*

.333 **Amaren altzuan**
Jesus dago illic,
Eztago icusteco
Emen viotzic.

*Emen dauca zure viotzac cec as-
co samurtu, icusiric Siongo Don-
cella ederra bere seme laztan, ba-
ña zauriz illa, altzuan ta laztan-
duric daucala.*

ERREGUBA.

Oh, ama naibaguez betia! Noc

emon al leijon atseguin puscabat
zure viotzari! Noc lagundu al lei-
zun zure negarrezco bacartadian!
Artu naizu, bada, zure semetzat,
ta eguizu, vicitza garbi bategaz,
izan nadilla beti zure atseguiña,
ta guero emon deizudazala beti
ceruban ceure amatasunaren es-
quer gozuac. *Aita gueuria, etc.*

Etxeago joxetegia

Hizketa joxetegia

Emaitz gomika zume siolezag gie us-
eo zuñamendia, ~~zumendi~~ ~~zumendi~~ ~~zumendi~~ Dots-
geldia egezana pertza seholo maztua, pu-
tzu zazpiak hiltz, uztapenak la joxetegia
gozten joxetegia,

ERREGEA

O, aita disipetene petisi! Zue

oñiz aldean, "biotzak oñizak" da
oñiz gozti, ipurua. Asteketan d. oñiz
gozti hiru etxoz, sinistra unibit
-mariak sined zined oñiz gaitzenean.



Amalaugarren egotaldija.

*Jesus obi edo sepultura barri baten
sartu ebeen lecuba.*

Ahi, nic viotzian

Jesus obitu,

Al baneu betico,

Ta Ama poztu.

*Gomunta zaite, celan Ama mai-
tiari quendu eutseen bere besuen
artetic Jesus, obitu edo sepultétaco.*

ERREGUBA.

*Oh, amaric errucarrijena! Cein
bacarra guelditu zarian! Nun do-*

zu ceure semia? ¿Nun dá zure maite bacarra? ¿Nun atserengo dau orain zure viotz samurrac? Orain artian, illic bada bere, icusi dozu ceure semia; baña arlosa astun batec estaldu dau, ta ez dauqué zure beguijac iñun atseguiñic. Eguin naguizu ni bere zure negarreen lagun, izan nadin guero betico atseguiñeen jaube.
Aita gueuria, etc.

AZQUENA.

Ez gaitian guelditu iracurte utsagaz Jesusen calvarijoco oñatzen gañian. Atera daiguzan, ari-maraco biar ditugun onera ta mesediac. Ezagutu daigun, araguijaren atseguin, ta mundubaren arroquerija ta labanquerijé.

tan, ez dala aurquituten cerurako bideric, ta oneec isten ez ditubanac, ecin jarraituco deutsala Jesu-Christori, ta izango ez dabela iños lecuric ceruko atseguiñetan.

V. J.

MISSIÑOIETARACO CANTAC.

Pecatariai deiac.

1. Jesus, artzain maitea,
dator gaur dedarréz,
ardi galduen billa
arin ta negarréz.

*Damuz, eta negarréz
nator ni zugana:
Jesus jay! nic damu dot
pecatu eguiñá.*

2. Ama baten negarrac
semea galtzean,
eztave cer icusi
onenen aldean.

3. ¿Nora zoaz iguezca
esquer gaistocoa?

arren aitu Jesusen
biotz naibacoá.

4. Erri asagóetan
¿cer aurquitu dozú?
gosea, ta negarra,
autortu nai bozú?

5. Celán ceu aztu zára
Jesus on-onegáz,
bere mesedeacaz,
bere laguntzeáz?

6. Zatoz, pecataria,
bide leun garbirá
gura badozu guero,
igon gloriará.

7. ¡Ay! ce poza berétzat
aurquitsen bazaituz,
lepo ganian pócic
ac artuco zaituz.

8. Jauna gana bazatoz,
ceru ederreán.

¡ce canta, ce yolasac
eguingo direán!

9. Ez bada, ez gogortu
guizon zoratuá;
ez beste bein larritu
Jesus maitetsuá.

10. Arren urten lasterca
bide deungueetaric;
agurra eguiiez
biotz-biotzeric.

11. Agur mundu zoroa,
agur pecatua:
gaur-ganic billa gurot
Jesus gozotsua.

Jesus curutzean yosiari.

Jesus gueure Jaun maite
amodiotsua,
damu dogu guztioc
ceu ofendidua.

1. Yosiric icustean
crutze orretan ceú,
erruquiz ¡ay! biotza
¿noc urratuco ez deú?
baita baleuco bere
arri biurtua. *damu*

2. Burutic oñetara
gorputz eder ori
zauri gordin eguinic
dozu guztiori:
¡ay! zorigaistocoa
gueure pecatua. *damu*

3. Oñac, escu ta alboa
danac zulaturic,
bizcar-aldea azotez
guztia apurturic;
arantza gogorracaz
yosiric buruá. *damu*

4. Aimbeste min gogorrez
gaisho zareala,
arzain bat ardiaren

atsean becelá,
gueure billa ceu zabiltz
erruquiz urtua. *damu*

5. Jesus ceu gure billa,
ta ¿gueuc igues zuri?
Gueu bear gozuzala
ceuc Jauna, dirudi.
¡O guizon esquerbaco
gaisto zoratua! *damu*

6. Jauna, ¿cer galtzen dozu
gueu ézoc galtzean?
¿Gueu baga etzinean
betico guztián?
¿Cec zaucaz ceu gugana
aren laztantsuá? *damu*

7. Ceu baga ecin gueinque
gauzaric baperé,
ezta ecelan emon
arnasa bat beré.
Ceu ondazun guztien
sustrai ta buruá. *damu*

8. Au ónelan yaquinic,
¿bici izan naz ni
beti urrin ceu-gànic,
ceure igues beti?
Ondo neucan ni lúrrac
nombait itsutua! *damu*

Andra Mariari escariac.

1. Pecatarioc ama,
Virginia zaituguz,
ceugan gueure biotzac
gueuc iminten doguz.

Eguizu ceuc, Maria,
gu gaitic erreagu
eriotzaco orduan
ez gaitezan galdu.

2. Ceure icen santua
balia bequigu:
ceure biotz onean
usteac guec doguz. *Eguizu*

3. Bein bere iñor ezta,
ta bai, Maria, zu,
ama izan ezquero,
doncella guelditu. *Eguizu*

4. Jaungoicuaren ama
eguinic zacusguz,
arren ceure semetzat
ezágutu gaizuz. *Eguizu*

5. Ceure semeac gaituz
cerutic billatú:
¿celan ceuc naico dozú
gueu gaitezan galdu? *Eguizu*

6. Zaquiuguz bada lagun
daiguzan garbitú
biotzac, pecatuau
ez gaitezan lotú. *Eguizu*

7. Pecatu eguin bogu
orren damu dogú;
agaitic ez gaitezan
infernuau sartú. *Eguizu*

8. Alperric infernuac
artuco dau damú;
orain, guero, ta beti
ceureac gara gú. *Eguizu*

9. Ceruraco bidea,
Virginia zara zu,
ara gura dabenac,
billa biar zaituz. *Eguizu*

Ama Virginia doloretacoari.

1. Agur dolorezco
Ama larritúa,
Erreguina laztan
erruquiz ortúa.
Artu, gaizuz Ama,
seme necatúa.

2. ¡O Raquel ederra
nequez atsetúa!
gu semeoc gagoz
negarrez urtúa. *Artu,*

3. Ceure biotzeco
cañibet sutsúac
sartu izan deutzuz
gueure pecatúac. *Artu,*

4. Orrec bada gacaz
guztiz damutúac,
garbitu guraric
negarrez errúac. *Artu,*

5. Gueure zoriónac,
Virginia prestúa,
ceure bitartécoz
dituguz artúac. *Artu,*

6. Ceure ezpatac dira
arma zorroztúac,
berian apurtzéco
diabru galduac. *Artu.*

7. Icusi nai gueunque
gueuc erbestetúoc,
ceure seme laztan
Jesus gozotsúa. *Artu,*

8. ¡O Ama bigúna!
¡ó erruquitsua!
arren izan gaiten
ceruan sartúac. *Arlu,*

S A L V E A.

- b. Jaungoicoac gorde zaitzala Erreguiña,
- b. erruquiz beterico Ama,
- a. bicitza, gozotásun eta esperanza gueurea.
- b. Jaungoicuac gorde zaitzala
- b. Ceure deiez gágoz
- a. Evaren ume erbestetuoc
- b. Ceu gana gagoz gu cizpuruz,
- b. sentimentuz eta negarrez
- a. negarrezco erri onetan.
- b. Ea bada, Andrea,
- b. bitarteko gueurea,
- a. biurtu eguiuz guganantz
- b. zure begui erruquitsu orrec.

- a. Eta erbeste au irago eta,
 - b. eracutsi eguiguzu Jesus,
 - b. ceure sabeleco frútu
 - b. bedeincatúa.
 - aa. ¡O biotz-biguna!
 - aa. ¡O erruquiorra!
 - b. ¡Oh Maria Virgina gozoa!
 - b. erregutu eguiyu gu-gaiti,
 - b. Jaungoicoaren Ama santea,
 - aa. merecidu daigun
 - b. alcancetea
 - a. Jesucristoren aguintzariac.
 - b. Amen. Jesus.
-

Beste batzuc Aita Jesuiten ejercicio eta misi-
ñuetan cantetan dirianac.

ELESSAN ZARRERAN.

ERRIJAC.

*Erdu pecatarija
Erdu Eleissará
Jaungoicuaren berbia,
Gogos entzuterá.*

CANTARIJAC.

1.^a Ez egon pecatuan
Ez egon luzaró
Damu izan ez daizun
Alperrian gueró.

2.^a Pecatuan gaur bertan
Etzaten bazará

**Benturaz infernuan
Eznatuco zará.**

2.^a Misiño Santu onetan
**Ontzen ez bazará
Benturaz urrengointan
Bicico ez zará.**

Elessatic urtetan danian.

ERRIJAC.

*Jesus escatzen deutzut
Nic parcaciñuá,
Lotzas beteric nator
Guztis damutuá.*

CANTARIJAC.

1.^a ¿Noz arte biar dozu
**Egon pecatuan
Iesusiric zaozala
Ija infernuban?**

Deadarrez daucasu
Jesus Jaun maitiá
Benetan nai dabela
Su lastandutiá.

- 2.^a Jesus aguertzen jatzá
Dana urraturic
Odola darijola
Curutzian josiric.
Neure biotz guztico,
Jesus maitetuá
Badaquit ni nazala
Zure borreruá.

- 3.^a Nire eguitade ta
Ibilli deungacaz
Untzez josi deutzudas
Ezcuaç oñacaz,
Arantza zorrotzesco
Coroe gogorrori
Nic ¡ay! imini deutzat
Jesus maitiari.

- 4.^a Emen naucazu Jauna

Negarrez urturic
Neure pecatuacaz
Ondo damuturic.
Jesus escatzen deutzut
Bijotz bijotzetic
Bedeincatu naizula
Curutze orretatic.



